

LAN BATZORDE IREKIAK

LAN BATZORDE IREKIAK			
TALDEA	ONGIZATE BATZORDEA		
IRAUPENA	2 ORDU	EGUNA	2017-11-28
GAIA	-	DEIALDIA	19:00
PARTE HARTZAILEAK			
Iñaki Etxezarreta	Eli Elgarresta	Arantxa Bidegain	Endika Igarzabal
Aratz Igartzabal			
ERABAKIAK			
GAIA	EKINTZAK	ARDURADURA	NOIZKO
SASIETA	<ul style="list-style-type: none">Sasieta mankomunitateak estatutuak berri behar ditu, 27 urteren ondoren.		
ZABORRAK	<ul style="list-style-type: none">Organikoarekin konposta egiten ez dutenek birziklatu dezaten, bi aukera ikusten dira:Zerrenda egin konposta ez daukatena eta berriro presionatu.Errefusaren ontzia astean bi aldiz irekitzen dela jarri, salbuespenak salbuespen.		
ETXEBIZITZA	<ul style="list-style-type: none">Etxebizitza hutsen zentsua eginda dagoen begiratuko, eta etxe horien zergak igotzeari buelta bat ematekotan gelditu ginen.Etxe hutsen tasak igotzea ez da bideragarri ikusten, baina alokairuan jartzen dutenak saritzea aukera ona dela ikusten da. Beste herri batzuetan hala egiten omen da (zerga batzuk jaitsiz).Arroako sailetan etxeak egiteko proiektuaren arabera, dena exekuzio bakarrean egin beharra legoke (14 etxebizitza). Herriarentzat ona ez dela irizita, plan hori aldatzen saiatuko gara (jabeen eskumena da), etxeak zatika egin ahal izateko.		
RALLYSPRINT-a	<ul style="list-style-type: none">Komisio desberdinetan planteatu da eta aurrera ez eramatea erabaki da batzorde irekia, nahiko jarrera ezkorra sumatzen zelako.Beraz, betiko ibilbidean egingo da ondo bidean.		
PANEL INFORMATIBOA	<ul style="list-style-type: none">Udaletxean dauzkagu bi panel. Bat herri-gunean eta bestea Aztirin jarriko da.		
AUTOBUS ZERBITZUE	<ul style="list-style-type: none">Baltsalekun autobus geltokia egokituko da, toki finko bat egote aldera herri-gunean. 2018 urte hasieran egingo da.		
HILERRIA	<ul style="list-style-type: none">Santu guztien egunaren ondorenean, lora eta lorontzi ugari geratzen dira alferrik hilerrian.Datorren urterako, hilabeteko epea jarriko da jendeak bere lorak/lorontziak jaso nahi baditu. Hilabete hori pasatakoan lurrean dagoena zaborretara botako da.		

EGUNEKO ZENTROA	<ul style="list-style-type: none">• Ormaiztegin lehen jubilatuen egoitza zegoen eraikina berritu eta eguneko zentroa jarri behar dute, bertako eta inguruko herrietako jendearentzako.• Irekita egongo litzatekeen orduen gastua herri guztien artean ordainduko litzateke. Gabiriko biztanleak joateko aukera egongo litzateke.• Datorren urtean hitz egingo dira baldintzak herri interesatuekin.		
------------------------	---	--	--

HURRENGO BILERA: otsailaren 20, 19:00tan